



## Eman hegoak euskarari



# Liburu denden diseinua eta gure irakurle bizitza

**Erreportajea** Bizirik dagoen denda horren barne diseinuaren aldaketek gure historia kulturala marraztu dutela uste dut

JON KORTAZAR

**L**iburu dendarri gorazarre. Hasiara-hasieratik garbi esango dut: Elkar Iparragirre dendako bezeroa naiz ni. Han oso ondo hartzen naute liburu bat behar dudanean, eta behar ez dudanean, asperduraz hara hurbiltzen naizenean liburu berrien azalak ikustera, edo nekaturaz hara sartu behar dudanean freskotasan izpi baten bila, orduan ere abegi onez hartu naute beti.

Hasiara-hasieratik garbi esango dut: estimu handian ditut hango langileak. Estimuan dut Gotzone, momentu larrietan ere irribarrez tratatu nauena; estimuan, Harkaitz eta Edu (Jon Arretxe idazle famatuak eta telesailen egileak ere zor dio mesederen bat); esker ona diet Nagoreri eta Amaiari, nire ibilbide ez asmatzen errazetan liburuak eskura jartzen dizkidatelako; esker ona han lana egiteari eta arrazoi desberdinengatik utzi zutenei. Nola ez?, Perdiri, aspaldiko lagunari, baina bera aipatu nuen beste artikulu batean, Arantzari eta Zuberogoiari. Eta Karlos ahaztu ezinari.

Baina gaur ez dut langileez idatzi nahi, baizik eta denda horrekin urteen poderioz izan duen barne diseinuaren aldaketaz, zeren liburu denda horren atalen toki aldaketek gure kulturaren historia marraztu baitute. Elkar Iparragirre dendako espazioak ere aldatzen joan dira kontsumo kulturala aldatuz joan den neurrian. Eta bizirik dagoen denda horren barne diseinuaren aldaketek gure historia kulturala marraztu dutela uste dut.

Elkar enpresa handia da, eta ongi kalkulatuak izango ditu irabazpenak eta galerak, eta jakingo du zer jarri erosleen begien aurrean lehen zartadan eroste nahia pizteko eta erabakia bermatzeko. Noiz edo noiz irakurri dut supermerkatu baten espazioak neurtuak direla salmentak igotzeko asmoz. Adibidez, behar-beharrezkoak diren elikagaiak, ogia adibidez, espazioaren barne aldean jarri ohi dira eta horrela erosleak pasilloak jarraitu behar ditu hara heldu orduko hain beharrezkoak ez diren beste jangaiak ikusiz, eta orga barrura ekarri. Jenero garestia begien eta eskuenez menera jarri ohi da; behe aldean, aldiz, behe aldean, ikusteko eta eskuartzeko zailak diren tokietan.

### Barne diseinua eta kultura

Denda horretan, diseinatzaileak kontrakoa esaten ez badit behint-

zat, sei espazio dira nagusi. Hiru goi aldean, eta beste hiru behe aldean. Lehen atalari, futbolearen egiten den antzera, lehen dibisioa, lehen maila deituko diogu, sartu eta lehen lerroan, eskumata, begien bista-bistan, joan eta aurkitzeko erraza, kontakizuna dago, narratiba eta nobela, gehien saltzen dena. Horixe da Liga irabazten dutenen tokia. Haratago joan eta haur eta gazte literatura, Liga ez badute irabazi, horiek behintzat Koparen jabe dira. Atal biok, espazio biok ez ditut aldatzen ikusi urteetan.

### Liburuetatik musikara

Bestelakoa izan da ezkerretara dagoen txokoaren patua. Horixe da denda horretan gehien mugitu den txokoa. Bezero naizenez, bidean ikusi ditut aldaketa guztiak. Aspaldiko garaian, ezkerrean eta jiratu ondoren aurrean diskoak ziren, musika: Euskalduna, klasikoa, gaurkoa. Eskuma aldeko txokoan, euskal literatura. Eskura ziren genero nagusi bi. Euskaldunak hara joaten ginen argitalpen berrien bilaketa erosketak egitera, eta musikazaleek ere hantxe zuten habia.

Baina bat-batean euskal literaturaren toki hori aldatu egin zuten. Aitortuko dut min handia izan nuela 'euskal literatura' atala satora jaitsi zutenean. Iazko denboraldian, Eibar bigarren mailara jaitsi zenean izan nuen minaren parekoa gutxi gorabehera. Aldaketa hori, zer eta euskal literatura eskura izatetik satora eramatea gure ametsen eta merkatuaren egoeraren artean sortu zen kinkaren sinbolo izan zen. Zentzu horretan geroago eta garbiago dut literatura ez dela soilik liburuetan bizi, eta kulturaren esparrua ere ez dela soilik emaitzetan ageri. Ez da literatura, merkaturak da, 'stupid'!

Txoko horretan musika jarri zuten, eta nahiko zabala zen han aurkitzen genuen musika saila.



Elkar liburu-denda baten barrualdea.

Baina euskal literaturari gertatu zitzaion moduan, musikaren garaiak ere porrot egin zuen, eta ezkerretara eta sarreratik urrunago jarri zuten atala. Liburuetatik diskoetara pasatu ginen, baina lehen aldaketa horrek ez zuen askorik iraun, edo niri horixe datorkit oroimenera behintzat.

Musikaren eta diskoen tokia komikiak hartu zuen. Beraz, bes-

Euskal literatura eskura izatetik satora eramatea gure ametsen eta merkatuaren egoeraren artean sortu zen kinkaren sinbolo izan zen

te esaldi borobil baten garaia heldu zen. Ez da musika, 'Spotify' da. Musika desagertu eta komikiak jarri zituzten txoko horretan.

### Aldaketak aldaketa dakar

Utzi genuen euskal literatura bigarren txokoan. Baina urteak urteen gainera datoz eta bigarren sotoa ere aldatuz joan da. Eskailerak jaitsi eta eskumara euskal literatura eta bezeroaren aurrez aurre, eskura, euskal gaiak saila. Ezkerretara kontsumo liburuak, bidaia liburuak, eta, barruan, sarreratik urrun eta nahiko zokoratuak, azken aldean, saioa eta pentsakizuna.

Baina ez dakit nik zergatik, komikia ere jaitsi da kategoriaz, eta euskal literatura zegoen tokian dago orain bigarren maila eroso batean. Euskal gaiak atala ez da askorik aldatu, bere tokian mantentzen da, baina euskal literaturako liburuak horren ezkerretara daude orain. Egia esango dut, askoz ere toki hobea du lehen baino, zabala da tokia, mahaietan azken berriak garbi agertzen direlarik, ikusgarriago esango nuke, baina eskaileretatik pixka bat urrutiago. Esan dut, gaur egun, bera zegoen tokian komikia dago. Literatura, musika, komikia... kulturaren hiru aro desberdin, eta hirurak, espazioaren diseinua kontuan hartuz gero, bigarren solairuan. Horrela joan da gure bizitza ere.

Espazioa salmenten ispilua bada, eta ez dakit nik horrela den, hurrenkera garbia da. Merkatuak adierazten du gure egunetan zer den literatura. Ez da literatura, espazioaren barne diseinua da 'stupid'!

Eta, neurri batean, horrela joan da gure historia ere. Euskal literatura tokiz aldatzen joan da denda horren diseinuan. Gaur, euskarazko liburuak aurkitzeko, sarreratik bide luzeagoa egin behar dugu. Aitortuko dut, alabaina, okerrago joan zaiola musikari. Jarraitzen du generoak lehen solairuko ezker aldean, baina espazio txiki-txiki batean, apalategi bat edo bi osatuz. Ezker aldeko espazio hori oparietako gauzez beterik dago...

Baina aldaketak aldaketa, lasai!, jarraituko dut joaten Elkar Iparragirrerara adiskideen xarma gozatzera, nekatuta nagoenean atsedean hartzera, eta liburuak erostera (nola ez?).

Ze, kontua horixe baita: irakurtzen jarraitzea, 'stupid'!